

HKEEren oroit-idatzia eta urteko kontuak

**Memoria y cuentas
anuales del TVCP**

2009



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA.....	5
II. FISKALIZATZEKO ARIBIDEA	7
II.1 LANERAKO PLANA	7
III. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK	11
III.1 LEGEBILTZAR, BATZAR NAGUSI ETA EHU-REN GIZARTE KONTSEILUAREKIKO HARREMANAK	11
III.2 KANPO HARREMANAK.....	11
IV.EPAITEGIAREN ZERBITZURA DIHARDUEN LANGILERIA.....	13
V.GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA PROZEDURAK.....	14
VI. HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN 2009-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK	15
- Urteko Kontuez besteko Auditoretza Txostena	16
- 2009eko ekitaldiako urteko kontuak	17
- Egoeraren Balantzea eta Galdu Irabazien Kontua.....	18
- Ibilgetua, Aurrekontu Plantilla.....	20
- Aurrekontu Aldaketak, Urteko Kontuei Oharrak	21
VII. KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2009-KO URTEA	22
ORDUEN BILAKAERA	23



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. INTRODUCCIÓN	25
II. ACTIVIDAD DE FISCALIZACIÓN	27
II.1 PLAN DE TRABAJO	27
III. RELACIONES CON OTRAS INSTITUCIONES	30
III.1 RELACIONES CON EL PARLAMENTO VASCO, JUNTAS GENERALES Y CONSEJO SOCIAL DE LA UPV	30
III.2 RELACIONES EXTERNAS	30
IV. PERSONAL AL SERVICIO DEL TVCP	32
V. DESARROLLO TECNOLÓGICO Y PROCEDIMIENTOS	33
VI. CUENTAS ANUALES DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS DEL EJERCICIO 2009	34
- Informe de auditoria independiente de las cuentas anuales	35
- Liquidación del presupuesto 2009	36
- Balance de Situación y Cuenta de Pérdidas y Ganancias.....	37
- Inmovilizado, Plantilla Presupuestaria	39
- Modificaciones presupuestarias, Notas a las Cuentas Anuales	40
VII. INFORMACIÓN DE GESTIÓN AÑO 2009	41
EVOLUCIÓN HORAS	42

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 17a

Vitoria-Gasteiz, 17 de junio de 2010



I. SARRERA

Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzko legean zehaztuta dago epaitegiaren oinarritzko konfigurazioa. Lege horretan ezarrita dago Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez sortu eta arautuko dela epaitegiaren osaketa, antolakundea eta eginkizun fiskalizatzaile eta jurisdikzionalaren prozedura. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean xedatuta dago Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko duela Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia jarduera.

Premisa hauek abiaburu hartuta, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak Herri-Kontuen Euskal Epaitegia sortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko atal modura, zuzenean Eusko Legebiltzarraren baitako dena. Eskumenen esparruan euskal sektore publikoaren ekonomia-finantza eta kontularitzako aribideen organo fiskalizatzaile goren izaera du eta Autonomia Erkidegoan gauzatzen ditu egitekoak, Eusko Legebiltzarrak eskuordetuta

Epaitegia Legebiltzarraren Osokoak hautatutako zazpi kidek osatzen dute, bertako kideen erabateko gehiengoaren aldeko botoarekin; Epaitegiaren egitura honako atal hauek osatzen dute:

- Lehendakaritzak
- Lehendakariordetzak
- Osokoak
- Idazkaritza Nagusiak

2009ko ekitaldian zehar kide guztiak berriitu dira.

Epaitegiaren kontrol esparru eta zabalak euskal sektore publikoa osatzen duten Erakunde guztiak besarkatzen ditu, hau da:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakundeen Administrazioa eta Sektore Publikoa.
- Lurralde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusi eta Foru Aldundiak eta horien meneko Erakundeen Enteak eta Sozietate Publikoak.
- Horien meneko diren Erakundeen Enteak eta Sozietate Publikoak.
- Aurrez zerrendatutako enteetatik eratorritako diru edo baliabide publikoak administratu edo erabiltzen dituen bestelako zeinahi erakunde.

Halaber, Epaitegiaren kontrola ere laguntza ekonomikoak eskuratzen dituen bestelako zeinahi pertsona fisiko zein juridikoren aribidera heda daiteke, hala nola, dirulaguntzak,



kredituak, abalak eta bestelako bermeak; baita, Euskal Sektore Publikoak eman diezazkion salbuespen eta hobari fiskal zuzen eta pertsonalak ere. Kontrolak laguntzei erabilera eta norako egokia ematen zaiela egiaztatuko du.

ANTOLAMENDUA

Epaitegia bere aribidea garatzeko fiskalizazio alorretan dago banatua. 2002ko ekitaldian zehar eta Epaitegiaren kideek beritu izanaren ondorioz, Osokoak lan esparruen zatiketa berria onetsi zuen; baita, Kontseilari bakoitzak esparru bakoitzaren gainean zuen erantzukizuna ere; hona hemen alorren arabera zati-banaketa:

- Lehendakaritza Fiskalizazio ez errepikariak, programatu gabeak eta erakundeartekoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa Orokorra, Bizkaiko Garraio Partzuergoa.
- Erakundeen atala: Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakundeen Administrazioa.
- Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 20.000 biztanletik gorako udalak eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa.
- 20.000 biztanletik beherako udalak, Mankomunitateak eta Txosten Diagnostiko Orokorra.

Banaketa honen helburua lanak sektore homogeneous arabera egitea da, erakundeen izaera abiaburu hartuta; baita, lan bolumena aintzat hartuta, auditoretza taldeak egoki izendatzea ere.



II. FISKALIZATZEKO ARIBIDEA

Epaitegiaren Legearen 9. artikuluari jarraiki, egiteko fiskalizatzaileak helburu du euskal sektore publikoa osatzen duten Erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioa antolamendu juridikoari egokitzen zaiola egiaztatzea. Fiskalizazioak, orobat, dirulaguntzen helburua bete den egiaztatuko du.

Erakundeek igorritako Kontu Orokorrek abiaburu hartuta, txostenak oniritzen dira, izaera orokorrekarekin honako hauei dagozkienak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuei buruzko txostena.
- Hiru Lurralde Historikoen Kontu Orokorren txostenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Entitateen Kontuei buruzko txosten orokorra.

Honez gain, berriazko txostenak hezurmamitzen dira, egiteko fiskalizatzailea gainerako euskal sektore publikora hedatzearren; hauek, Epaitegiaren beraren ekimenez egiten dira, edota, Eusko Legebiltzarrak edo Lurralde Historikoen Batzar Nagusiek eskatuta.

II.1 LANERAKO PLANA

Lanerako Plana hezurmamitu aurretik, HKEEk planean barne hartzeko diren lehentasunezko eskabideak jaso eta aztertu ditu, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako dagozkien batzordeek eskatutakoak.

Epaitegiaren Osokoak 2008ko abenduaren 30ean egindako bilkuran 2009ko aldirako Lanerako Plana onetsi zuen. Planak abian dauden eta aurreko planei dagozkien onesteko dauden jarduerak besarkatzen ditu.

Lehendakaritza:

- 2000-2006 aldirako onetsitako jarduera politiko eta erakundearteko planak:
 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana.
 - Lanbide Prestakuntzarako Euskal Plana (2004-2007) (09/12/22ko Osoko bilkura)
- Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Ukanduna, SLk gauzatutako dolarren erosketa-eragiketen fiskalizazioa eta legezketasunaren Analisiaren Txostena (2002-2005) (09/06/11ko Osoko bilkura).
- Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia (09/12/03ko Osoko bilkura).
- Berroeta Aldamar, S.L, 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldiak (10/03/04ko Osoko bilkura).
- Guggenheim Museoaren Erakundearen Fiskalizazioa, 1999tik 2007ra (10/05/13ko Osoko bilkura).
- Proiektu Estrategikoen Programa (Behin-behinean 10/06/17an onetsitakoa)
- Inbertsio Publikoari Finantza Laguntza emateko Esparru Plana (10/07/17ko Osoko bilkura).
- Oarsoaldea SL, Eskualde Garapenerako Agentzia (Behin-behinean 10/06/17an onetsitakoa)
- Hauteskunde autonomikoak, 2009ko martxoan (09/07/24ko Osoko bilkura).



- Hainbat Osasun-zerbitzuren kontratazioan Kudeaketa Juridiko eta Ekonomiko-Finantzarioraren Fiskalizazioa. Lanerako Planean txertatua Osokoaren erabaki bitartez, Eusko Legebiltzarraren Osokoak luzatutako eskaera betez (Behin-behinean 10/05/13an onetsitakoa).

EAEren Administrazio Orokorra eta Bizkaiko Garraio Partzuergoa:

- Euskal Herriko Plan Soziosanitarioa, baloraketa ekonomiko-finantzariora (09/07/24ko Osoko bilkura).
- EAEren Administrazio Orokorraren likidazioaren fiskalizazioa, 2008 (10/04/20ko Osoko bilkura).
 - Eusko Jaurlaritzak iraungi direnean artatu ez diren emandako mailegu eta bermeen itzulera kontzeptuan ingresatu behar zituzkeen eta ingresatu ez dituen kopuruen fiskalizazioa, 2007 eta 2008ko ekitaldiei dagozkienak.
 - Eusko Jaurlaritzak 2008an emandako laguntza zuzenen fiskalizazioa.
- Bizkaiko Garraio Partzuergoa 2008, Bilboko Metroa, 2008 barne dela.
- EAEren Kontu Orokorra, 2009

Autonomia Erkidegoaren Erakundeena:

- EAEren Erakundeen Administrazioaren Kontuaren fiskalizazioa, 2007 zeinetan sozietate publikoak, enteak eta erakunde autonomoak barne hartzen baitira (10/03/04ko Osoko bilkura).
- Parke Teknologikoen Fiskalizazioa, 2007.
- Euskal Sektore Publikoaren Partaidetza > % 50etik gorakoa duten Sozietateak, 2000-2006ko aldiaren sortutakoak (10/03/04ko Osoko bilkura).
- Fundazioak, zeinetan Administrazio Publikoaren tokia nagusia den.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak partaidetutako Ente eta Sozietateen fiskalizazioa, 2004-2007.
- EAEren Erakundeen Administrazioa eta Sektore Publikoa, 2008.

Araba eta Bizkaiko Foru Administrazioa

- AFaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2007ko ekitaldiarena. Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2007ko ekitaldia (09/11/11ko Osoko bilkura).
- BFaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2007ko ekitaldiarena. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2007ko ekitaldia (09/06/11ko Osoko bilkura).
- AFaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2008ko ekitaldiarena. Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2008ko ekitaldia.



- BFaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2008ko ekitaldiarena. Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2008ko ekitaldia (Behin-behinean 10/04/20an onetsitakoa).

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea

- GFaren Administrazio Orokorraren fiskalizazioa, 2008ko ekitaldiarena. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Autonomo eta Foru Sozietate Publikoen Kontuen Fiskalizazioa, 2008ko ekitaldia (10/06/17ko Osoko bilkura).
- Euskal Herriko Unibertsitatearen fiskalizazio txostena, 2007 (09/09/22ko Osoko bilkura).

Toki Administrazioa, 20.000 biztanletik gorako udalak.

- Barakaldoko Udalaren Integrazio Sozio-Kulturalaren Kudeaketa (CIS) (10/03/04ko Osoko bilkura).
- Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa Aurreko txostenak gaurkotzea (10/06/17ko Osoko bilkura).
- Bilboko garraio zerbitzua (BILBOBUS) (09/06/05eko Osoko bilkura).
- Basauriko Udalaren Fiskalizazioa, 2007 (09/06/05eko Osoko bilkura).
- Sestaoko Udalaren Fiskalizazioa, 2006 (09/03/30eko Osoko bilkura).
- Barakaldo Antzokia Sozietatearen kontuak, 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietakoak (10/04/20ko Osoko bilkura).
- Bilbon La Peña kiroldegia eta aparkalekuaren esleipena, exekuzioa, harrera eta likidazioa (09/09/22ko Osoko bilkura).
- Galdakaoko Udala, 2008 (Bizkaia) (Behin-behinean 10/06/17an onetsitakoa)
- Leioako Udala, 2008 (Bizkaia) (10/03/04ko Osoko bilkura)

20.000 biztanletik beherako udalak:

- Tolosako Udalaren Fiskalizazioa, 2005-2006 (09/06/05eko Osoko bilkura).
- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2005eko ekitaldirako Toki Entitateen Diagnostikoa (2009/03/30eko Osoko bilkura).
- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2006ko ekitaldirako Toki Entitateen Diagnostikoa (Behin-behinean 10/04/20ko Osoko bilkuran onetsia).
- Euskal Autonomia Erkidegoaren 2007ko ekitaldirako Toki Entitateen Diagnostikoa (Behin-behinean 10/05/13ko Osoko bilkuran onetsia).
- Zaratamoko Udalaren Fiskalizazioa, 2006 (09/07/24ko Osoko bilkura).
- Bastidako Udalaren Fiskalizazioa, 2006 (09/12/03ko Osoko bilkura).
- Eltziegoko Udalaren Fiskalizazioa, 2006 (09/07/24ko Osoko bilkura).
- Zallako Udalaren Fiskalizazioa, 2006 (09/07/24ko Osoko bilkura).
- Zumarragako Udalaren Fiskalizazioa, 2006 (Gipuzkoa) (09/07/24ko Osokoa).
- Ordiziako Udala, 2007 (Gipuzkoa)
- Balmedako Udala, 2007 (Bizkaia)
- Zumaiko Udala, 2008 (Gipuzkoa)
- Gernikako Udala, 2008 (Bizkaia)



- Muskizko Udala, 2008 (Bizkaia)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

III.1 LEGEBILTZAR, BATZAR NAGUSI ETA EHU-REN GIZARTE KONTSEILUAREKIKO HARREMANAK

Epaitegiak garatzen duen egiteko fiskalizatzailearen ondorioz, azaleratutako legezko zein kontularitzako lege hausteak eta/edo okerreko aribideak jasotzen dituen txostena mamitzen du; halaber, fiskalizaziogai diren erakundeen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa hobetzeko ezarri beharreko neurri zuzentzaileak ematen ditu.

Txostenak Eusko Legebiltzarrari, Batzar Nagusiei, fiskalizaziogai izan diren Erakundeei eta Gobernuari, Foru Aldundi eta Udalei igortzen zaizkie.

Epaitegiaren Lehendakaria Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordearen aurrera agertu da 2009ko azaroan, egindako txosten baten berri emateko.

III.2 KANPO HARREMANAK

Kanpo Kontrolerako Organoak

1995az geroztik hainbat lankidetzak hitzarmen izenpetu dira Kanpo Kontrolerako Organoekin (KKO/OCEX) eta horien bitartez guztien arteko harremanak finkatzen dira eta prestakuntza eta hedapen egitekoak zehazten. Horretarako, jarraipen batzorde bat sortu zen, prestakuntza planak onesten dituen.

Halaber, merezi du Auditoretza Publikoa aldizkariaren argitarapen bateratua azpimarratzea, urtez urte sendotzen ari dena, KKOen arteko lotura eta hedapen gune dena.

KKOen arteko harreman hauetan, Lehendakariak hainbat bilera egiten dituzte urtean zehar guztien intereseko gaiak aztertzeko. KKOen Lehendakariaren Biltzarra Bartzelona, Valentzian eta Iruñean elkartu da 2009ko martxoan, ekainean, eta urrian.

Berebat, Koordinazio Batzordeak hainbat bilera egin ditu Kontuen Epaitegiaren eta KKOen toki esparruan eta horietan toki entitateetako kontseilariak esku hartzen dute.

Kontuen Epaitegia

Epaitegiak onesten dituen txosten guztiak Kontuen Epaitegiari igortzen zaizkio, eta aldi berean honek Autonomia Erkidego, Toki Erakunde eta Unibertsitate Publikoen multzoari dagokionez Gorte Nagusietan aurkezten dituenetan barne hartzen dira.

Gainera, Kontuen Epaitegiak kontularitzako erantzukizuna auzirateko eskumena du eta aukera du alde aurreko instrukzio atala autonomia erkidegoetako kanpo kontrolerako organoetan eskuordetzeko.

Eskuordez, Kontuen Epaitegiak abian jarritako ondoko espedienteen alde aurreko instrukzioa egiten jarraitu da:

- 112/07 Aldez aurreko jarduketak, Bilboko Udalaren Kontua, 2004. Izapidea Epaitegiari eskuordetu zitzaion, lana amaitu eta 2009ko martxoaren 10ean behin-behineko likidazioa igorri du. 2009ko apirilaren 29ko Auto bitartez artxibatu da.



- Aldez aurreko jarduketak, 123/07 zk., Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, 2004; Izapidea Epaitegiari eskuordetu zitzaion eta 2009ko martxoaren 30ean igorri du behin-behineko likidazioa. 2009ko urriaren 6ko Auto bitartez artxibatu da.

Honez gainera, Kontuen Epaitegiak 2009an aldez aurreko hainbat jarduera abiarazi ditu eta horien izapidearen eskuordetza ez du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak onartu.

Nazioarteko harremanak

Aipagarri dira Europako Kontu Auzitegiarekin mantentzen diren loturak, 2009ko urrian honek Bartzelonan Ingurumenaren auditoria publikoari buruz antolatutako Mintegian esku hartuaz.

Komunikabideekiko harremanak

Gure txostenak, behin onartu eta fiskalizatutako erakundeetara igorri ondoren, www.tvcp.org helbideko web orrian argitaratzen ditugu.

Halaber, eta komunikabideekiko harremanak indartzeko, onartutako eta fiskalizatutako erakundeei igorritako txostenak, Epaitegiaren dagokion prentsa ohar laburtuarekin batera komunikabide guztiei igortzen zaie posta elektronikoko bitartez.

2009ko ekitaldian web-orrian 21 txosten eman dira argitara; honela, bada, 2009ko abenduaren 31n 413 txosten kontsulta zitezkeen, 1990az geroztik HKEEk jaulkitakoak.

Berebat, joan den ekainaren 18an Eusko Legebiltzarraren Osokoak hurrengo 6 urtetarako izendatu zituen HKEEren kide berrien izenekin orrialdea gaurkotu da; berebat, 2009ko urriaren 21ean Epaitegia sortu zeneko XX. urteurrena ospatu zen eta horren gaineko atal informatiboa sortu da, argazki sorta eta bideoa ikusgai dituela.



IV. EPAITEGIAREN ZERBITZURA DIHARDUEN LANGILERIA

Epaitegiaren zerbitzura diharduen langile kopurua 82 pertsonakoa izan da 2009 urte amaieran, honako kategoria hauetan zati-banatuak:

Goi karguak	8
Behin-behineko langileak	10
Auditoreak	40
Letratuak	6
Administrazioko langileria	18

2009ko urtean zehar, Epaitegiak langileriaren prestakuntzarako guztira 2.054 ordu erabili ditu, kanpo erakundeek antolatutako ikastaroetan, hizkuntzen ikaskuntzarako orduak kontatu gabe.

Ikastaroen berariazko aztergaiak honako hauek izan dira: alderdi ekonomiko, kontularitzako eta aurrekontuzkoak, kontratazioa, ogasun publikoa, politika komunitarioak eta aplikazio informatikoak.

Prestakuntzan erabilitako guztizko aurrekontua 87.654 eurokoa izan zen; honek 2009ko ekitaldian, "Ondasun erosketa eta zerbitzuak" gastuen 2. kapituluaren egindako gastu guztien gainean % 7,4 egin du.

2009ko urtean zehar, derrigorrezko hizkuntza eskakizunak eskuratzera emandako orduak 1.926 izan dira.



V. GARAPEN TEKNOLOGIKOA ETA PROZEDURAK

HKEEk 2009ko ekitaldian zehar ezarritako auditoriako informatika tresnen erabilera indartu du eta amaitutako proiektu guztien lan paperak zentralizatu ditu, gainerako lan taldeek kontsulta egin eta erabil ditzaten.

Windows-erako ICA 32 komunikazioen bezeroa ezartzeak HKEEz kanpo diharduten lantaldeak gure egoitzako zerbitzuekin integratzeko bide eman digu.

Erositako ordenagailu eramangarri berrien teknologiak emandako aurrerapauso mailak bide ematen digu software bidez enkriptatutako ekipoak, hardware eta hatz-marka bidez enkriptatutako beste batzuekin ordezkatzeko. Honek ekipoetan mantentze lanak errazten ditu, izan ere, diskoan errore bat gertatzen den bakoitzeko ez baitago desencriptatu beharrik; egiteko horrek orain arte ekipo bakoitzeko lan egun bat eskatzen zuen. Segurtasunari dagokionez, enkriptatze modu berri honek zerbitzu bereberri eusten die, hala nola, horietan jasotako informazioa erabiltzeko ezintasuna, nahiz diskoa desmuntatu eta esklabo modura beste ekipo bati lotu.

Idazkaritza Nagusian artxibo lanak erraztuko dituen agiriak kudeatzeko sistema informatikoa abian jartzeko teknologiak eta laguntza emateko tresnen ezarpena kontratatzen ari da.

HKEEren datuak igortzeko zerbitzua hobetu asmoz, komunikazioen beste hornitzaile batekin datu-linea bat kontratatu da, hartara, linea nagusia eteten denean, automatikoki ordezkoa hasten da martxan.

Epaitegiaren web orria hobetu da, sortu zenetik argitaratutako txosten guztietarako sarbide zuzena barne dela; orain arte 1998 baino lehenagoko txostenetarako irispidea Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren bidez egiten zen. Halaber, Sektore Publikoaren Kontratuen Lege berria betez, gure web orrian "Kontratugilearen profila" jaso dugu; bertan, kontratazioak argitaratzen dira, balizko lehiatzaile guztiek irispidea duten pleguak zintzilikatzen dira, kontratazio prozedura bakoitzaren egoeraren berri izan dezaketelarik.

Intranetean bilatzaile bat txertatu da, arintasunez agiri zein txosten guztietara iristeko bide ematen duena.

Sei urtetik gorako antzintasuna duten ekipoak berriagoekin ordezkutzen ari dira, erabiltzaileek lana arintasun handiagoz egin ahal izan dezaten.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI. HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN 2009-KO EKITALDIAREN URTEKO KONTUAK



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABANTE
auditores



Urteko kontuen ikuskaritza-txostena

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoari, bertako Lehendakariak hala eskatuta:

1. HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN urteko kontuen gaineko auditoria egin dugu, honako hauek besarkatzen dituen: egoeraren balantzea 2009ko abenduaren 31n, emaitzen kontua, ekitaldiaren aurrekontuko likidazioa, ekitaldi ekonomikoaren emaitza, aurrekontu itxien likidazioa, aurrekontuz kanpoko eragiketak, diruzaintza kontua eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion ohar argigarriak, horiek formulatzea Epaitegiaren Idazkari Nagusiaren erantzukizun dena. Gure erantzukizuna aipatutako urteko kontu horien gaineko iritzia osotasunean ematea da, oro har onartutako auditoria arauetara jarraiki gauzatutako lanean oinarritzen dena; horretarako, hautazko probak eginez, urteko kontuen ebidentzia egiaztagarriaren azterketa eta aurkezpenaren, erabilitako kontularitzako printzipioen eta egindako balioespenen ebaluazioa gauzatu behar da.
2. Idazkari Nagusiak, konparaziozko ondorioetarako, balantzearen eta emaitzen kontuaren kontusail bakoitzarekin batera, 2009ko ekitaldiari dagozkion zifrez gain, aurreko ekitaldiari dagozkionak ere aurkezten ditu. Gure iritzia, ordea, 2009ko ekitaldiaren urteko kontuei soilik dagokie. 2009ko apirilaren 8an 2008ko ekitaldiaren urteko kontuen gaineko auditoria txostena jaulki eta bertan aldeko iritzia eman genuen.
3. Gure iritzira, honekin batera 2009ko ekitaldiko Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN 2009ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen emaitzena eta aurrekontu likidazioaren sarrera eta gastuena ere, eta informazio beharrezko eta behar hainbatekoa jasotzen dute horiek egoki interpretatu eta ulertzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoaren Planak ezarritako kontularitzako printzipio eta arauetara jarraiki, aurreko ekitaldian erabili zirenekiko berdintasunari eusten diotenak.

Informe de auditoría de cuentas anuales

Al Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, por encargo del Presidente:

1. Hemos auditado las cuentas anuales del TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS, que comprenden el balance de situación al 31 de diciembre de 2009, la cuenta de resultados, la liquidación presupuestaria del ejercicio, el resultado del ejercicio económico, la liquidación de presupuestos cerrados, las operaciones extrapresupuestarias, la cuenta de tesorería y las notas explicativas correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, cuya formulación es responsabilidad de la Secretaria General del Tribunal. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.
2. La Secretaria General presenta, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance y de la cuenta de resultados, además de las cifras del ejercicio 2009, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a las cuentas anuales del ejercicio 2009. Con fecha 8 de abril de 2010 emitimos nuestro informe de auditoría acerca de las cuentas anuales del ejercicio 2008, en el que expresamos una opinión favorable.
3. En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2009 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera del TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS al 31 de diciembre de 2009 y de los resultados de sus operaciones y de los ingresos y gastos de la liquidación del presupuesto correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha y contienen la información necesaria y suficiente para su interpretación y comprensión adecuada, de conformidad con principios y normas contables establecidos por el Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

Abante KLZ Auditores, S.L.P.

Inscrita en el ROAC con el nº S1632

Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean S1632 zk. arekin izen emana

Fco. Javier López-Cano Fernández de Betoño
Bazkidea-Kontu ikuskatzailea
Socio-Auditor de cuentas

2010eko apirilaren 7a
7 de abril de 2010

Abante KLZ Auditores, S.L.P.

Arca. 2 - 4º • 01005 VITORIA-GASTEIZ

Tel. 902 734 200 / 945 154 420 • Fax 945 135 278 • www.abanteauditores.com • E-mail: vitoria@abanteauditores.com

Inscrita en el R.S.A. de Álava: tomo 1150, libro 0, folio 190, Hoja VI-10129. • Inscrita en el R.O.A.C. con el nº S1632 y en el R.E.A. • CIF B-01369503

ALBACETE • ALMERIA • BARCELONA • CÁDIZ • MADRID • MARBELLA • MURCIA • OVIEDO • VALLADOLID • VITORIA



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA/HKEE

2009-KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK

1. 2009-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA							Mila euro
SARRERAK	___Aurrekontua___			Kitat. eskub.	Kobran.	Kobr. gabe	% Exek.
	Hasierakoa	Aldat.	B.-bet.				
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	0		0	20	20	0	-
4.- Transf. eta dirul. arruntak	7.230		7.230	7.230	7.230	0	100
5.- Ondare sarrerak.....	30		30	50	44	6	167
7.- Kapital dirulag. eta transf.	231		231	231	231	0	100
8.- Finantza aktiboen aldak.....	759		759	30	30	0	4
Guztira	8.250		8.250	7.561	7.555	6	92

GASTUAK	___Aurrekontua___			Oblig. aitort.	Ordaink.	Ordain. gabe	% Exek.
	Hasierakoa	Aldat.	B.-bet.				
1.- Langileen gastuak.....	6.842		6.842	5.847	5.847	-	85
2.- Ondasun erosk. eta zerb.	1.182		1.182	1.033	995	38	87
4.- Transf. eta dirul. arruntak	6		6	1	1	-	17
6.- Inbertsio errealak.....	162		162	54	54	-	33
8.- Finantza aktiboen aldak.....	58		58	22	22	-	38
Guztira	8.250		8.250	6.957	6.919	38	84

2. AURREKONTU ITXIAK				Mila euro
	Hasierak.	Baliog.Diruzaintza	Azkena	
Sarrera itxiak.....	37	-	37	-
Gastu itxiak	76	-	76	-

3. AURREKONTUAREN EMAITZA		Mila euro
Eskubide kitatuak.....		7.561
Obligazio aitortuak		(6.957)
Gastu itxien baliogabetzea.....		0
Aurrekontuaren emaitza		604

4. DIRUZAINITZA GELDIKINA BARIAZIOA		Mila euro
Diruzaintza geldikina 08.12.31n		2.366
Aurrekontuaren emaitza		604
Diruzaintza geldikina 09.12.31n		2.970



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

5. DIRUZAINZAKO GELDIKINA		Mila euro
Diruzaintza		3.422
Aurrekontuaren zordunak.....		6
Aurrekontuaren hartzekodunak		(38)
Aurrekontuz kanpoko zordunak		(1)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak		(419)
Diruzaintza geldikina 09.12.31n		2.970
Inbertsioei lotutako DG		177
Erabilera orokorreko DG		2.793

6. EGOERAREN BALANTZEA 2009-KO ABENDUAREN 31-N						Mila euro
AKTIBOA	aben. 09	aben. 08	PASIBOA	aben. 09	aben. 08	
IBILGETU MATER. ETA EZMAT.	2.369	2.536	BEREZKO FONDOAK	4.675	4.422	
Makineria, instalakuntzak eta tresneria	3.156	3.126	Ondarea	4.422	4.395	
Abian dauden instalak.	0	0	Ekitaldiaren aurrek. emaitza.....	253	27	
Garraioak	62	166				
Higigarriak	365	365				
Bulegogaiak.....	63	62	GERORATUTAKO SARRERAK			
Informatika ekipoak.....	220	219	Kapitalezko transferentziak.....	710	533	
Ibilgetu ezmateriala.....	6	16				
- Pilatutako amortizazioa.....	(1.503)	(1.418)				
ZORDUNAK	51	89	HARTZEKODUNAK.....	457	494	
Aurrekontu arrunta.....	6	37	Aurrekontu arrunta.....	38	76	
Aurrekontu itxiak.....	0	0	Aurrekontu itxiak.....	1	1	
Aurrekontuz kanpokoak	0	(1)	Erak. P. hartzekodunak	414	413	
Maileguengatiko zordunak	45	53	Ez aurrekontukoak.....	4	4	
DIRUZAINZAZ						
Bankuak	3.422	2.824				
Aktiboa	5.842	5.449	Pasiboa	5.842	5.449	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

7. 2009-KO EKITALDIAREN GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Mila euro

GASTUAK	09 urtea	08 urtea	DIRU-SARRERAK	09 urtea	08 urtea
Langileen gastuak	5.847	5.777	EAeren transf. arruntak.....	7.230	6.821
Errentamenduak	216	219	EAeren kapital transf.(doiketa)	54	74
Konponketak eta zaintza	52	50	Interesak.....	50	149
Zerb. profes. askeak.....	87	50	Diruzaintza geldikina	0	0
Aseguru sariak	20	15	Beste hainbat sarrera	20	0
Harreman publik. eta protok. ...	32	43			
Hornigaiak	61	42			
Bulegoko materiala.....	35	27			
Liburuak eta argitalpenak.....	31	29			
Garbiketa eta garbidura	139	138			
Segurtasuna.....	2	1			
Garraioa eta egoitza gastuak ..	131	131			
Komunikazioak	86	84			
Informatika-materiala.....	38	43			
Auditoria Publikoa aldizkaria ...	6	5			
Bilera, hitzaldi eta ikast.	74	86			
Beste administrazioekiko zerb.	0	0			
Artxibo zerb.....	0	0			
Bestelako zerbitzuak	20	20			
Tributuak	3	3			
Irab. asmor. gab. erak.transf. ...	1	2			
Amortizazioari egindako zuzk.	198	202			
Aurr.ekit.kapital transf. (irizpidea)	0	0			
Ekit.itxien sarrer.baliogab.....	0	0			
Ibil.bester.galerak	22	50			
Maileguen erregularizazioa	0	0			
Gastuak	7.101	7.017	Diru-sarrerak	7.354	7.044
			Ondare emaitza	253	27



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

8. IBILGETUA

Mila euro

	___08 aben. ___			___Urtea___			___09 aben. ___		
	Gordina	Amort.	Garbia	Berria	Bajak	Amort.	Gordina	Amort.	Garbia
Instalakuntzak.....	3.126	(728)	2.398	30	0	157	3.156	885	2.271
Garraio gaiak.....	166	(166)	0	0	(103)	0	62	62	0
Higigarriak.....	364	(309)	55	1	0	12	365	321	44
Bulegogaiak.....	62	(60)	2	0	0	0	63	61	2
Informatika ekipoak.....	219	(138)	81	1	0	29	220	168	52
Ibilgetu ezmateriala.....	16	(16)	0	22	(10)	0	6	6	0
Guztira	3.954	(1.417)	2.536	54	(113)	198	3.872	1.503	2.369

9. AURREKONTU PLANTILA

Pertsonak

	___08 aben. ___		___Aldakuntza___		___09 aben. ___	
	Zuzkidura	Egiazkoa	Zuzkidura	Egiazkoa	Zuzkidura	Egiazkoa
Goi karguak.....	8	8	-	-	8	8
Auditoriako aholkul.	8	8	-	-	8	8
Lehendakariaren idazk.	1	1	-	-	1	1
Lehendakariord. idazkaria	1	1	-	-	1	1
Auditoreak	14	12	-	-	14	14
Auditore atxikituak	28	25	-	-	25(a)	22
Auditore atxikituak B	0	0	-	-	10(b)	4
Letratuak	9	7	-	-	8(a)	6
Informatika teknik.	1	1	-	-	1	1
Kontab. eta zerb. orokor. teknik.	1	1	-	-	1	1
Itzultzailea	1	1	-	-	1	1
Inform.lag. eta inform. kudeatz.	1	1	-	-	1	1
Administr. kudeak. ardurad. ...	1	1	-	-	1	1
Administrariak	9	9	-	-	9	9
Adm.lagun.-telefonozaina	1	1	-	-	1	1
Gidari-Menpekoa.....	1	1	-	-	1	1
Gidaria	1	1	-	-	1	1
Ordenantza-Menpeko.....	1	1	-	-	1	1
	87	80			93	82

(a) (b) 1 plaza sortzeko

(b) Programako bitartekoak



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

10. AURREKONTUAREN ALDAKETAK

Mila euro

2009ko ekitaldian zehar ez da aurrekontuko aldaketarik egin

11. URTEKO KONTUEI EGINDAKO OHARRAK

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia Eusko Legebiltzarraren 1/88 Legeak arautzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoan sektore publikoaren jardura fiskalizatzen duen jardute-atal gorena da.

HKEEK Euskadiko Aurrekontu Araubidearen 31/83 Legeak EAEren jardute-ataletarako ezartzen dituen kontabilitate prozedurak erabili ohi ditu.

HKEEK 2001ean jasotako kapitalezko transferentziak Kontularitzako Plan Orokor Publikoan egozteko kontularitzako irizpidea aldatu du, sarrera modura erregistratuaz finantzatzen duten inbertsioa gauzatzen denean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VII. KUDEAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2009-KO URTEA

ORDUEN BILAKAERA

HKEEren zerbitzura diharduen langileriaren lanorduen norakoa honako hau izan da 2009an:

ORDUEN BILAKAERA								Ordu\kop.
	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	%
Fiskalizazio proiektuak	49.459	46.286	46.540	47.606	51.020	50.523	55.942	10,72
Informatika	(1)	(1)	(1)	3.131	1.844	1.679	1.789	6,55
Zerbitzu Orokorrak.....	18.973	19.930	19.024	22.958	22.836	23.930	23.845	(0,35)
Ezargarriak ez diren orduak								
Fiskalizazio proiektuak	3.164	4.456	5.822	2.630	3.393	3.945	3.919	(0,66)
Bidaiak	3.897	4.024	3.595	6.245	4.898	5.903	5.453	(7,64)
Euskara.....	4.733	4.103	3.416	2.266	2.679	2.326	1.926	(17,2)
Prestakuntza	1.732	1.306	1.112	1.345	981	1.802	2.054	13,98
Baja	6.910	7.637	7.459	10.000	9.156	9.267	3.795	(59,05)
Beste zenbait	1.822	2.155	1.857	1.300	1.990	1.197	1.725	44,11
Ordaindutako baimenak	1.313	1.441	2.146	2.091	2.423	2.816	1.185	(57,91)
GUZTIRA	92.003	91.338	90.971	99.575	101.220	103.388	101.633	2,2

(1) Aurreko ekitaldietan Zerbitzu Orokorrak idazpuruan jasotako datuak.

Zuzenean proiektuetara emandako ordu kopuruak lan egindako ordu guztien % 55 egiten du.

Zerbitzu orokorretan jasotako orduak fiskalizazioari ezargarriak zaizkion egitekoak zuzenean egiten ez dituen langileriaren orduak barne hartzen dituzte (administrari laguntzaileak, administrariak, itzulpena, kontabilitatea, ordenantza eta gidariak), zeinetatik atal garrantzitsu bat fiskalizazio proiektuen garapenean gauzatzen diren administrazioko egitekoei baitagokie, hala nola, txostenen itzulpena, formatua ematea, artxiboak eta fiskalizaziora diren erakundeekiko gutuneria.

Egindako bidai ordu kopurua ekitaldi bakoitzean fiskalizazioa programatu den entitatearen kokalekuaren arabera da, aurreko ekitaldian egindakoekiko % 7,6 murriztu dela.

Fiskalizazio proiektuei ezargarriak ez zaizkien orduak, lanak, analisiak eta azterlanak, txosten juridikoak e.a. egiten emandako orduak dira, urteroko lan programan jasotako fiskalizazio proiektu jakin bati ez dagozkionak. Ordu kopuruak % 0,7 egin du behera aurreko ekitaldian egindako orduakiko.

Bajako orduak Lanerako Ezintasun egoerei eta amatasun baimenetarako lizentziei dagozkie.

Hona hemen txosten errepikarietan egindako orduen bilakaera, gogoan hartuta 2002-2007ko ekitaldietako kontuei dagozkien txostenen egiazko orduak eta 2008ko ekitaldirako aurrekontu egindakoak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas


ORDUEN BILAKAERA	FISKALIZATUTAKO EKITALDIA						
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008(1)
EAEren Administrazio Orokorra.....	5.329	5.271	6.725	10.545(*)	5.752	6.753	7.200
EAEren Erakundeen Administr. (2).	-	2.950	4.190	2.662	2.224	4.285	3.800
Osakidetza.....	858	-	-	-	-	-	-
Arabako Foru Aldundia.....	4.020	4.224	4.681	4.366	4.064	4.775	3.350
Bizkaiko Foru Aldundia.....	4.793	5.067	4.892	4.969	4.441	4.957	4.800
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	3.331	3.563	3.966	4.479	3.638	3.750	3.600
Udalen diagnostikoa.....	1.055	1.167	1.345	1.481	2.205	-	-
Euskal Herriko Unibertsitatea.....	1.326	2.935	-	2.080	-	2.850	3.000

(1) Aurrekontu egindako orduak

(2) 2003ko ekitaldian lanaren zabalak Erakunde Autonomoak barne hartu ditu; 2004ak eta hurrengoek, gainera, sozietate publikoak eta enteak, fundazioak eta Osakidetza besarkatu dituzte.

(*) Txostenari txertatutako beste hainbat lan barne hartzen ditu.

Lan hauetan egindako orduen gora-behera, ekitaldi bakoitzeko Lanerako Planean adostutako berariazko hainbat lan jakin txostenean barne hartu izanarekin dago lotua eta gainerakoan, egonkortasun ildoari eusten dio.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



I. INTRODUCCIÓN

La Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, determina la configuración básica del Tribunal, estableciendo que será mediante una Ley del Parlamento Vasco la que creará y regulará la composición, organización y procedimiento de sus funciones, fiscalizadora y jurisdiccional. La Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, dispone que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas controlará la actividad económica de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Partiendo de estas premisas, se aprobó la Ley 1/1988 de 5 de febrero por la que se crea el Herri Kontuen Euskal Epaitegia/ Tribunal Vasco de Cuentas Públicas como órgano propio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dependiente directamente del Parlamento Vasco. En el ámbito de sus competencias tiene el carácter de órgano supremo fiscalizador de las actividades económico-financieras y contables del sector público vasco y ejerce sus funciones en la Comunidad Autónoma por delegación del Parlamento Vasco.

El Tribunal está compuesto por siete miembros elegidos por el Pleno del Parlamento con el voto favorable de la mayoría absoluta de sus componentes estando su estructura formada por los siguientes órganos:

- Presidencia
- Vicepresidencia
- Pleno
- Secretaría General

Durante el ejercicio 2009, ha tenido lugar la renovación de todos sus miembros.

El ámbito y extensión del control del Tribunal abarca a todas las Instituciones que integran el sector público vasco, esto es:

- Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Administración Institucional y Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Las Juntas Generales y las Diputaciones Forales de cada uno de los Territorios Históricos y los Entes Institucionales y Sociedades Públicas de ellos dependientes.
- Las Entidades Locales y los Entes Institucionales y Sociedades Públicas de ellos dependientes.
